



Ubideko ohiko zalantzak

Bost saioetarako laguntza partekatua

Pertsona erreferenteak laguntza du. Bere egitekoa proposamenak ikastetxera hurbiltzea eta ulertzen eta, hala badagokio, inplementatzen laguntzea da; ez espezialista bihurtzea, ezta prestakuntza osoa berdin-berdin errepikatzea ere.

Ubiden jasotako prestakuntza osoa berriro eman behar al dut nire ikastetxean?

Ez. Ez da espero lau orduko prestakuntza osoa berriz ematea. Saio bakoitzean ideia nagusiak partekatzeko eta proposamenak aurkezteko prestatutako materialak izango dituzu.

Saio bakoitzeko proposamen guztiak landu behar al ditugu ikastetxean?

Ez derrigorrez. Ubiden hainbat proposamen ezagutuko dituzue, baina ikastetxe bakoitzak bere errealitaterako egokienak direnak aukeratu eta egokitu ahal izango ditu.

Ubidera joaten den pertsonak berak inplementatu behar al du proposamena?

Ez. Pertsona erreferenteak prestakuntza ikastetxean partekatzen du, baina inplementazioa edozein irakaslek edo irakasle-taldekin egin dezake.

Saio bakoitzaren ondoren berehala inplementatu behar al dugu?

Ez. Ikastetxe bakoitzak erabakiko du noiz txertatzen den hobeto proposamen bakoitza bere programazioan, betiere dagokion prestakuntza jaso ondoren.

Ikas-egoera osoa egin behar al dugu?

Ez derrigorrez. Osoa inplementa daiteke, zati bat aukeratu edo egokitzen egin, betiere proposamenaren oinarrizko asmo matematikoa mantentzen bada.

Materialak edo jarduerak egokitu al ditzakegu?

Bai. Proposamenak ikasleen ezaugarrietara, denbora erabilgarria eta ikastetxearen testuingurura egokitu daitezke. Komeni da landu nahi den ideia matematikoa eraikitzen laguntzen duena ez kentzea.

Zer jaso beharko dugu portfolioan?

Zerbait sinplea: zer eraman den gelara, zein talde edo mailatan, nola garatu den labor-labor, esperientziaren lagin txiki bat eta irakasleen arreta bereziki zertara joan den.

Eta ikastetxeko bileran erantzuten ez dakidan galdera bat egiten badidate?

Ez da ezer gertatzen. Ez da espero erantzun guztiak izatea. Gero Ubideko materialak kontsultatu edo zalantza talde prestatzaileari helaraz dezakezu.

